



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Analisi Musikala II

USE 2024

www.ehu.eus



MUSIKA ANALISIA II

ANÁLISIS MUSICAL II

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

1.-Obraren iruzkina eta analisisia. (8 puntu)

Obra baten iruzkin analitikoak egin behar duzu, A eta B aukeren artean bat hautatuta. Horretarako, partitura osoa izango duzu, eta musika-lan bakoitza 3 aldiz entzutea gomendatzen da prozedura honi jarraituz:

- Azterketaren hasieran, A aukera eta B aukera entzungo dira, gehien komeni zaizun aukera hautatu ahal izateko.
- 5 minutu igaro ondoren, berriro entzungo dira A aukera eta B aukera, iruzkina egiten hasteko.
- 30 minuturen ostean, A aukera eta B aukera entzungo dira berriro.

Iruzkin analitikoak egiteko, partituran bertan idatzi ahal izango duzu, eta epaimahaiari emango diozu partitura, egindako probarekin batera.

Entzunaldiaren iruzkin analitikoan, hauek baloratuko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokiaren erabilera, zuzentasun ortografikoa eta irakasgaiaren oinarriei buruzko ezagutza.

Horretarako, jarraian adierazten diren alderdiak hartuko dira kontuan, eta bereziki zainduko da berariazko musika-terminologia.

Iruzkin analitikoak lau atal izango ditu, musika-analisiaren arlo batzuei heltzeko:

- a) Obraren testuinguru historikoa, garai bereko beste musika-estilo batzuekin eta beste konpositore batzuekin duen erlazioa [2 puntu]
- b) Organologia: musika-tresnen eta/edo ahotsaren sailkapena [2 puntu]
- c) Obraren egitura: forma musikala, sekzio nagusiak, fraseen eta semifraseen arteko banaketa, haien arteko simetria kontuan hartuta [2 puntu].
- d) Analisi harmonikoa: obraren tonalitatea, izan ditzakeen modulazioak, kadentziak, akorde adierazgarriak. Akonpainamendu mota eta beste edozein alderdi analitiko garrantzitsu [2 puntu]

2.- Musika-terminoen definizioa: (2 puntu).

Definitu Musika Analisiarekin zerikusia duten **4 musika-termino**, proposatutako sei terminoen artean. Proba honen puntuazioa, guztira, **2 puntukoa** izango da. Hautatutako termino bakoitza gehienez ere 0,5 punturekin baloratuko da.

4 termino baino gehiago definitzen badituzu, idazketaren hurrenkeraren arabera lehenengo laurak zuzenduko dira. Definizioek argiak eta laburrak izan behar dute; aski izango da gehienez ere bospasei lerro izatea bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa baloratuko dira.

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea



MUSIKA ANALISIA II

ANÁLISIS MUSICAL II

1. Obraren iruzkina eta analisia. (8 puntu)

Analisia egiteko musika-obrak (bat aukeratu):

- **A aukera:** Johann Sebastian Bach, *Inbentzioa 1, BWV 772*.
- **B aukera:** Antonio Vivaldi, *Concerto la minorrean op. 3, 6.a, 1. mugimendua*.

Iruzkin analitikoak lau atal izango ditu, musika-analisiaren arlo batzuei heltzeko:

- a) Obraren testuinguru historikoa, garai bereko beste musika-estilo batzuekin eta beste konpositore batzuekin duen erlazioa [2 puntu]
- b) Organologia: musika-tresnen eta/edo ahotsaren sailkapena [2 puntu]
- c) Obraren egitura: forma musikala, sekzio nagusiak, fraseen eta semifraseen arteko banaketa, haien arteko simetria kontuan hartuta [2 puntu].
- d) Anlisi harmonikoa: obraren tonalitatea, izan ditzakeen modulazioak, kadentziak, akorde adierazgarrienak. Akonpainamendu mota eta beste edozein alderdi analitiko garrantzitsu [2 puntu]

2. Musika-terminoen definizioa. (2 puntu)

Proposatutako sei musika-terminoen artean **lau aukeratu** behar dituzu:

- Aria
- Hari-laukotea
- Garapena
- Nokturnoa
- Organologia
- Tonalitatea

Inventio I

BWV 772

Johann Sebastian Bach
(1685-1750)

3

6

9

12

Musical notation for measures 12 and 13. The system consists of two staves. The upper staff is in treble clef and the lower staff is in bass clef. Measure 12 features a melodic line in the treble with a sharp sign and a half note, followed by eighth notes. Measure 13 continues with a melodic line in the treble and a bass line with eighth notes and a sharp sign.

14

Musical notation for measures 14 and 15. The system consists of two staves. The upper staff is in treble clef and the lower staff is in bass clef. Measure 14 features a melodic line in the treble with a sharp sign and a half note, followed by eighth notes. Measure 15 continues with a melodic line in the treble and a bass line with eighth notes and a sharp sign.

17

Musical notation for measures 17, 18, and 19. The system consists of two staves. The upper staff is in treble clef and the lower staff is in bass clef. Measure 17 features a melodic line in the treble with a sharp sign and a half note, followed by eighth notes. Measure 18 continues with a melodic line in the treble and a bass line with eighth notes and a sharp sign. Measure 19 continues with a melodic line in the treble and a bass line with eighth notes and a sharp sign.

20

Musical notation for measures 20 and 21. The system consists of two staves. The upper staff is in treble clef and the lower staff is in bass clef. Measure 20 features a melodic line in the treble with a sharp sign and a half note, followed by eighth notes. Measure 21 continues with a melodic line in the treble and a bass line with eighth notes and a sharp sign. The system ends with a double bar line and a fermata over the final notes.

L'Estro armonico

Concerto VI (Rv 365)

Antonio Vivaldi

Op.3 No.6

Allegro

Violino I

Violino II

Viola

Continuo

4

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

8

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

11

Solo

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

15

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 6 $6\frac{4}{4+}$ # 6 7 $5\frac{4}{4}$ # 6

19

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

Tutti

p

6 $6\frac{4}{4}$ 7 $5\frac{4}{4}$ 3 *p*

23

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

Solo

f

f

7

26

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

7 # 6 6

29

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 6 6 6 6 6

32

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

Tutti

6 6/4 6 5 6 6/4 6 # 6 7 5/4

36

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 # 6

40

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 # 6 7 # 6 5 5

44

Solo

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6/5 5+/4 # 6/5 5+/4 # 5 7 7 #

48

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

7 # 7 # b 6 b #

52

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

7 7 7 #

55

Tutti

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6/5 5/4

59 *Solo*

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

62

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

65

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 \flat 6 6 \sharp 6 6 6 6 \sharp 6

68 *Tutti*

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 \sharp 6 \sharp 7 \sharp 7 6 6 5/4 \sharp

71 **Solo**

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 # 6 4# 6 6 4 6

74 **Tutti**

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 4 6 # 6b 7b 6b # 6b

77

VI.I

VI.II

Vla.

Cont.

6 7 # 7 # 7 # 6 6 5 4 #

Largo

81 **Solo e Cantabile**

VI.I

VI.II

VI.III

VI.IV

Vla.

pp sempre

pp sempre

pp sempre

pp sempre

pp sempre

MUSIKA ANALISIA II. EZOHIKO DEIALDIA

Sonata-forma

Sonata-forma edo allegro sonata musika klasiko eta erromantikoan gehien erabiltzen den formatako bat da. Sonaten, laukoteen, sinfonien eta kontzertuen lehen mugimenduak modu hori erabiliz egiten dira askotan. Oinarrizko formak hiru zati ditu: aurkezpena, garapena eta berraurkezpena.

Organologia

Organologia musika-tresnak eta haien sailkapena aztertzen dituen zientzia da. Musika-tresnen historia, kultura bakoitzean erabiltzen diren tresnak, soinu-ekoizpenaren alderdi teknikoak eta musikaren sailkapena aztertzen ditu. Antzinako kultura askok musika-tresnak eta haiek gizartean betetzen zuten rola deskribatzen dituen dokumentazioa utzi zuten. Ondoren, Michael Praetoriusen lanak nabarmentzen dira: *Syntagma Musicum* (1618). Geroago, Hornbostel-ek eta Sachs-ek egindako lanak eta musika-tresnen sailkapena nabarmentzen dira. Gaur egun, zenbait aditu tresna berriak sailkatzen eta aztertzen ari dira.

Dodekafonismoa konposizio-teknika bat da, mendebaldeko eskala kromatiko temperatuko hamabi soinuen erabilera sistematikoan oinarritzen dena. Hau da, zazpi soinu naturalak (Do, Re, Mi, Fa, Sol, La eta Si) gehi bost soinu alteratuak (Do#/Re b, Re #/Mi b, Fa#/Sol b, Sol#/La b eta La#/Si b). Sistema dodekafonikoa Arnold Schönberg-ek asmatu zuen 1921. urtearen inguruan, baina teknika honen arabera konposatutako lehen lanak ez ziren 1923ra arte amaitu. Hamabi soinuen antolamendu posible ugari daude: seriea aukeratzea konposizio dodekafonikoaren funtsezko faktorea da, hark zehaztuko baititu konposizioaren funtsezko ezaugarrietako batzuk.

Pikardia-akordea

XVI. mendeko musikan asko erabiltzen zen baliabidea da, obra bat edo atal bat tonalitate minorrean dagoen obra baten barruan amaitzeko akorde perfektu maior bat erabiltzean datzana. Barrokoaren eta klasizismoaren garaietako konposizioetan oso baliabide ohikoa izan arren, eta obra erromantiko batzuetan ere maiz erabili zen arren, pixkanaka gero eta gutxiago erabiliz joan zen, desagertu arte.



Concerto grossoa

Barrokoko musika instrumentalaren forma garrantzitsuena da, concertinoaren (bakarlari taldea) eta tuttiaren (orkestrako gainerako kideak) arteko kontrastean eta txandakatzean oinarritua. Concerto grossoan errepikatzen den zati bat egon ohi da, *ritornello* delakoa, halako errepika edo lelo baten moduan, eta hiru mugimendu: azkarra-geldoa-azkarra. Alessandro Stradellak sortu bide zuen XVII. mendearen amaieran. Hala ere, kontzertu mota honetako konpositore ezagunena Arcangelo Corelli da. Corelliren garaian, bi mota bereizten ziren: *concerto da chiesa*, formalagoa, eta *concerto da camera*, dantza-suite gisa pentsatua.

Nokturnoa

Nokturnoa musika-pieza bat da, ahotsekoa edo instrumentala, melodia gozokoa eta egitura librekoa. Nokturnoak, normalean, pieza lasaiak dira, adierazkorak eta lirikoak, eta, batzuetan, ilun samarrak. Izen horrekin idatzitako lehen nokturnoak John Fieldek osatu zituen. Bera hartzen da nokturno erromantikoaren sortzailetzat. Normalean, mugimendu bakarreko pieza da, piano bakar baterako idatzia. Kantatu daitekeen melodia bereizgarri bat izaten du, akonpainamendu arpegiatuarekin, gitarrak duenaren oso antzekoa. Hala ere, musika mota horren konpositorerik ezagunena Frédéric Chopin izan zen: mota horretako 21 obra idatzi zituen.